

Gure enpresak aisialdia du ardatz. Gure funtsezko jarduera aisialdian egingo diren ekintzen sormena eta burutzea izango litzateke. Alde batetik, aisialdirako ekintza horiek pentsatu, sortu eta erregistratu beharko ditugu eta, bestetik, ekintza horiek aurrera eramango ditugu gure partaideen bitartez.

Esan dugun bezala, gure partaideetako askok aniztasun funtzionala izango dute, ondorioz, aisialdirako ekintza horiek irisgarriak izan beharko dira pertsona guztientzako.

Gizakia erdigunean jartzen dugu, bere egoerak eta bere nolakotasunak osotasunean kontuan harturik. Izan ere, ekintzak 2 ezaugarri hauen arabera egokitu beharko ditugu.

Horrekin batera, aurretik aipatu dugun bezala, bai euskararen erabilpena eta baita, naturarekin kontaktuan egotea oso garrantzitsuak jotzen ditugu. Izan ere, gaur egungo gazteen aisialdiak, hau da, teknologien erabilpenak, bai gure gorputzarekin eta baita, gure inguruarekin dugun harremanak kaltetu egiten dituzte. Hau aldatu nahia, gure funtsezko jarduerak bestelako ekintzetan oinarrituko dira:

Egingo ditugun jardueren artean honako hauek aurkituko ditugu:

- Mendira irteerak: Ekintza honetan, naturarekin harremanetan eta elkar eraginean jarriko gara. Kirola aitzakitzat hartuta, gure bazterrak eta ingurunea ezagutu eta aztertuko ditugu, naturaren zaintza bermatuz.
- Kostaldera irteerak: Goiko ekintzarekin lotuta doa. Kasu honetan, itsasoaren zaintza bermatzea izango da helburu. Itsasoarekin bat egitea eta errespetatzen ikastea. Horrekin batera, uretako ekintzak ere egingo ditugu, hala nola, piraguak.
- Trebetasun anitzak lantzeko jolasak: Sozializazio prozesu bat aurrera eramateko, beharrezkoak diren trebetasunak garatzea jolasen bitartez. Harremanak eta sareak modu osasuntsu eta arrakastatsu batean eraikitzea du helburu.
- Motrizitatea lantzeko jolas eta tailerrak: Atal honetan, gorputzari emango diogu garrantzia. Hala nola, potentzialitateen zein gaitasunen garapena erraztea. Ingurunearekin modu egokian adierazten eta komunikatzen laguntzen dio.
- Mahai inguruak: Hausnarketarako eta eztabaidarako guneak izango dira. Bertan, aniztasun funtzionala, harreman sareak, digitalizazioa, gazteak gaur egun...

bezalako gaiak izango ditugu, sentsibilizazioa sustatzeko eta baita, gure ideiak eraiki eta deseraikitze eta sinesmenekin apurtzeko.

Laburbilduz, esan genezake enpresa honen funtsezko jarduera aisialdirako ekintzen sorrera eta burutzea izango liratekela. Hala ere, esan beharra dago bestelako jarduera batzuk ere egongo direla, ez direnak funtsezkoak izango, baina garrantzitsuak izango direnak enpresak aurrera egiteko.

Jarduera horien artean honako hauek aurkitu ahal ditugu:

- Ekintzen programazioa eta antolaketa
- Enpresako kontuen kudeaketa
- Beharrezkoa denean, komunikazio bideen kudeaketa
- Parte hartzaileen jarraipen pertsonalizatua
- Aniztasun funtzionala duten pertsonen errealitatea gazteen artean ikustaratzeara

Beraz, hauek izango ziren gure enpresaren funtsezko zein bigarren mailako jarduerak.